



## E37 JOSÉ BERGAMIN en HILETA MONUMENTUA





**Egilea:**

**Urtea:** 1983

**Kokalekua:** Domingotxoneako hilerria (Hondarribia). Kandido Sasetaren hilarriaren ezkerretara.

**Sarbidea:** Torreko aldapa.

**Tipologia:** Hileta monumentua.

**Materiala:** Kareharri landua.

**Idulkia/euskarria:**

**Interes orokorra.** 2/5.

- Interes historikoa: 2/5 (idazle garrantzitsua).
- Interes artistikoa: 1/5.
- Interes teknologikoa: 1/5.

**Babesa:**

- **EAE:** EZ.
- **Udal babesa:** EZ.
- **Proposamena.** Udal babesa: oinarrizkoa (pertsonaia garrantzitsua).

**Kontserbatutakoaren ehunekoa:** % 100.

**Katastroko erreferentzia:** Hiriko lursaila: 9702282 (Udal Hilerria).

**Argiak:** Ez.

**Errotulazioa:** Ez.

**Testuak monumentuan:** JOSE BERGAMIN GUTIERREZ. Madrid 30-12-1895 / Donostia 28-9-1983. "AQUÍ HE ENCONTRADO MI MAR Y LA MAR PODEROSA Y FUERTE AQUÍ ENCONTRE LA MUERTE SIN TENERLA QUE ESPERAR" // "AMIGO QUE NO ME LEE AMIGO QUE NO ES AMIGO . POR QUE YO NO ESTOY EN MI MAS QUE EN AQUELLO QUE ESCRIBO".

**Egoera:** Ona.

## DESKRIBAPENA

Disko formako hilarria, aurpegi bakar batean landua. Hilarri biribila lau hostorekin eta epitafioarekin oinean.



## OHAR HISTORIKOAK:

José Bergamín Gutierrez (Madril, 1895 - Donostia, 1983) Espainiako politikan ezker muturreko posizioak defendatu zituen idazlea izan zen, bere literaturan ere posizio horiek islatu zituen. Prosa, antzerkia eta poesia landu zituen, eta Cruz y raya aldizkaria fundatu zuen. 14ko eta 27ko belaunaldiko literatoen artean sailkatu ohi da era berean, baina zehazki ez da batean ez bestean kokatzen.

Franco jeneralaren diktadura ezarrita Mexikora, Venezuelara, Uruguaira eta Frantziara erbesteratu zen, eta España peregrina aldizkaria eta Séneca argitaletxea fundatu zituen epe luze horretan. 1970ean Madrilera itzuli zen. Gero Hondarribia hartu zuen behin betiko bizitokitzat, eta bertako hilerrian dago lurperatuta hala nahi izan zuelako.

